


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

PRACTICUM IIren Plan Orokorra

Praktika Dekanordetza
2016ko apirila

PRACTICUM IIIren PLAN OROKORRA

1	TESTUINGURUAN JARTZEA.....	4
2	AURREBALDINTZAK.....	5
3	Hezkuntza eta Kirol Fakultateko PRACTICUMaren ARAUDI OROKORRA	6
3.1	GOGOETA OROKORRAK.....	6
3.2	BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK	7
3.3	EGONALDIA AURRERATZEA.....	8
3.4	Plazen eskaintza eta esleipena.....	8
3.5	IKASLEEK IKASTETXEA AUKERATZEA	8
3.6	IKASLE KOPURUA IKASGELA BAKOITZEKO.....	9
3.7	TUTORIAZIOA.....	9
3.8	IKASLEAK.....	10
3.9	PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN FUNTZIOAK	11
3.9.1	Praktika Dekanordetza.....	11
3.9.2	Praktika-batzordea.....	11
3.9.3	Hezkuntza Ordezkaritza	12
3.9.4	Eskolako koordinatzailea	12
3.9.5	Ikastetxeko irakasle-tutorea	13
3.9.6	Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea	13
3.9.7	Sailetako zuzendariak	14
3.9.8	Titulazioaren koordinatzaileak.....	14
3.9.9	Ikasleak.....	15
4	PRACTICUM iii. HELBURU OROKORRA	16
5	GAITASUNAK.....	17
5.1	HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMaren GAITASUNAK.....	17
5.1.1	PRACTICUMaren gaitasunak graduari eta esleitutako ikasgaiari.....	18
5.1.2	Haur Hezkuntzako PRACTICUM IIIren gaitasunen eta lehen mailako gaitasunen arteko erlazioa	19
5.2	LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK.....	20
5.2.1	PRACTICUMaren gaitasunak graduari eta esleitutako ikasgaiari.....	21
5.2.2	Lehen mailako gaitasunen eta Lehen Hezkuntzako PRACTICUM IIIren gaitasunen arteko erlazioa	22
6	EDUKIAK.....	23

7	FASEAK ETA ZEREGINAK	24
8	MEMORIARAKO GIDOI BATEN PROPOSAMENA, PRACTICUM III	38
9	ANTOLAKUNTZA	39
9.1	Kronograma	39
9.2	AURRETIKO PRESTAKUNTZA.....	39
9.3	PRACTICUMAREN KREDITUEN BANAKETA	39
10	EBALUAZIOA	41
10.1	PRACTICUM III: PRAKTIKALDIEN BALORAZIO ORRIA	42
10.2	PRACTICUM III: PRAKTIKALDIEN BALORAZIO ORRIA	44

1 TESTUINGURUAN JARTZEA

PRACTICUM-modulua bi ikasgaitan antolatzen da:

- Ikastetxeko praktikak (38 ECTS kreditu)
- Gradu-amaierako lana (12 ECTS kreditu)

Ikastetxeko praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3, 3-6) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan egingo dira (1.-2., 3.-4., 5. eta 6. mailak). PRACTICUM progresiboa denez, graduako ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturteetan egiten dute ikasgaia (PRACTICUM I, PRACTICUM II eta PRACTICUM III). Edukiek jarraitutasuna dute, eta ikasturte bakoitzean landutakoek aurreko mailetan landutakoek baino gaitasun handiagoa erakutsi behar dute. Gainera, 4. Mailako Gorputz Hezkuntzako minorrean matrikulaturik dagoen ikasle orok bere espezialitateko irakasle batekin burutu beharko du praktikaldia.

PRACTICUMak aukera ematen die ikasleei beren lanbiderako gaitasunak, ezagutzak, trebetasunak eta praktika lortzeko eta integratzeko. Halaber, egindako ikasketa eta praktikei buruz banaka zein taldeka hausnartzeko abagunea ere badute.

Ikasgaiaren kredituak honako taula honetan ikusten den moduan banatzen dira:

	Ikasturtea	Haur Hezkuntzako Gradua (38 kreditu)	Lehen Hezkuntzako Gradua (38 kreditu)
	Lehena	—	—
PRACTICUM I	Bigarrena	8 kreditu	9 kreditu
PRACTICUM II	Hirugarrena	12 kreditu	11 kreditu
PRACTICUM II	Laugarrena	18 kreditu	18 kreditu

PRACTICUM laren helburua ikasleek Ikastetxe bat ezagutzea da, etorkizunean hezkuntzako profesional izango baitira. Horrez gain, behaketa orokorra egin behar dute, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ikasitako ezagutzak integratuz, genero-tratamenduari arreta berezia emanez eta ikasgelako, ikastetxeko eta inguru sozialeko aniztasunera egokituz.

PRACTICUM IIren hirugarren ikasturteari dagokio, eta honako ardatz hauek ditu: etapako ikasleekin irakaskuntza- eta ikaskuntza-esperientzien irakaskuntza garatzea, zikloko eta etapako bizitzan parte hartzea eta norberaren prestakuntza- eta lan-garapenari buruzko autokritika eta hausnarketa egitea. Xedeak hauek dira: ikasleek modu kritikoan hausnarketa egin dezatela, hasierako ezagutza praktikoak testuinguru horietan aplikatzeari buruz, eta sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko beren modua zehazten duten baldintzei buruzko gogoeta egitea.

PRACTICUM IIIa aipamenekin (minorrak) eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzearekin lotu daiteke, eta ikasleei proposatzen die PRACTICUM I eta PRACTICUM IIan bizi-izandako esperientzia kritikoki berrikus dezaten, eta hezkuntzako esku-hartzea diseinatu eta praktikara eraman dezaten, aurreko PRACTICUMen berrikuspenetatik ateratako emaitzak eta ondorioak kontuan izanda eta dagokion ikastetxeko testuinguruan kokatuta. Gorputz Hezkuntzako minor profesionalizatzaileari dagokionez, ikasleak kritikoki berrikusi beharko du jakintza arlo horretan bizitako esperientzia.

2 AURREBALDINTZAK

PRACTICUM Iren helburu nagusia hau zen: behaketaren eta esku-hartze txikien bidez, ikasle bakoitzak irakasleak ikasgelan eta ikastetxean kudeatu beharreko testuinguruak eta egoera praktikoetako aniztasuna identifikatzea, eta egoera horietan egin daitekeena mugatzen duten baldintzak eta horiek ikasleen ikaskuntzan duten eragina ikustea. Ikasleak hasierako ezagutza praktikoak ekintzetara eramateko moduari buruz modu kritikoan hausnartzea da PRACTICUM Iren helburu nagusia, eta haren pentsamoldea eta egoera praktikoetan jarduteko modua baldintzatzen duten testuinguru-egoerei buruz gogoeta egitea ere bai. Hausnarketa hori egiteko, ikasgelako zereginen kudeaketan eta plangintzan aktiboki parte hartuko du, curriculum-proposamenak diseinatuko ditu, eta, gero, horien garapenak eta emaitzak ebaluatuko. Hala, PRACTICUM Iren ikasleak ikaskuntza profesionalerako lehen urratsak emango ditu, ezagutza teorikoak praktikaren bidez eguneratuz eta jarduera garapen-testuinguruaren arabera ebaluatuz.

Ikasgai (PRACTICUM II) ebaluatua izateko, ikasleak PRACTICUM II gainditu behar du.

PRACTICUM III irakasgaiak PRACTICUM I eta PRACTICUM II n bizi izandako esperientzien berrikuspen kritikoa izango du abiapuntu, eta, hurrengo fasean, hezkuntzako esku-hartze baten proposamena diseinatu eta praktikara eramango dute (berrikuntza-proiektu didaktikoak, lankidetzazkoak, esku-hartzekoak...). Gorputz Hezkuntzako minorrean matrikulatutako ikasleek dagokion ikasgai espezialista den irakasle-tutore batekin egingo dute **Heziketa Fisikoko Practicum 3a egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da minorreko irakasgai guztiak matrikulatuta izatea.**

PRACTICUM IIIa. Ikasgai honetan (PRACTICUM III) ebaluatua izateko, ikasleak PRACTICUM I eta PRACTICUM II gainditu behar ditu.

3 HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEKO PRACTICUMaren ARAUDI OROKORRA

3.1 GOGOETA OROKORRAK

Praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren arabera arautzen dira, EHAA/2011an ezarritakoari eta aplikatzekoa den *Graduko eta lehen eta bigarren zikloko ikasketen kudeaketa-araudiari* jarraituz.

Irakaskuntza zeregin profesionala da, eta irakasleari eskatzen dio banaka zein taldean lan egiteko, antolatze eta ikasteko gaitasuna, eta lanerako eta inprobisatzeko prestutasuna. Irakasleari eskatzen dio halaber, sentikortasun soziala eta taldea kudeatzeko zorroztasuna, enpatia eta komunikazio-gaitasunak izan ditzan, baita ematen dituen ikasgaien ezagutza sakona eta baliabide didaktiko asko ere. Gaitasun eta ezagutza horiek garrantzitsuak dira irakaslea ikasleekin elkarrengaitzeko eta haiei ikaskuntza-erronkak proposatzeko gai izan dadin. Horrez gain, bere burua gizaki oso gisa eraikitzen laguntzen diote aurrera egiteko bideak eskainiz eta, aldi berean, babesa ematen eta eskatzen diotela.

PRACTICUMak irakasle izango denari zeregin konplexu horretara hurbiltzeko aukera ematen dio. Praktikaldietan, lanbidearen errealitatearekin egiten du topo, eta errealitate horretaz jabetzeko, beharrezkoa da ikasleekin harremanetan egotea, taldean zein banaka, eta eskoletako irakaskuntzan urteak daramatzaten profesionalen gidaritzapean jardutea.

Horregatik, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Praktiken Dekanordetzak praktikak antolatu eta koordinatzen ditu, ikastetxeekin lankidetzaz estuan.

Irakasle-tutoreei, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreei eta ikasleei aholkularitza emateko, informazio-dokumentu zehatzak izango ditu Praktiketako Dekanordetzak, PRACTICUM bakoitzerako, eta, hor, honako hauek jasoko dira: orientazio orokorrak, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologiarik gomendagarrienak, egin beharreko prestakuntza-jarduerak eta zereginak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntzarekin lotutako alderdiak, ordutegiak, parte hartzen duten ezagutza-eremuak/sailak, praktiketan parte har dezaketen ikastetxeei buruzko informazioa (kokapena, ordutegiak, hizkuntza-ereduak, egiten ari diren berrikuntza-proiektuak...) eta praktikak egoki gauzatzeko behar den bestelako informazio guztia.

Edozein ustekabe balego, ikasleak Dekanordetzari eta Praktika Batzordeari eska diezaieke laguntza.

Praktikak amaitutakoan, Unibertsitateak eta Hezkuntza Ordezkaritzak dagozkion ziurtagiriak igorriko dizkiete irakasle-tutoreei.

Praktiketako ikasleak berezko zereginak izango ditu, eta ez dituzte inolaz ere ikastetxeetako, erakundeetako edo enpresetako irakasleenak gauzatu.

Araututako praktikak direnez, Eskola Aseguruak automatikoki estaliko du jarduera.

3.2 BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK

PRACTICUM I

1. ASIGNATURA OSOA (Practicum I) baliozkotuko da baldintza hauetan:
 - 1.a. Irakasle-ikasketetako Diploma izanez gero.
 - 1.b. Azken hiru urteetan Lehen Hezkuntzan edo Haur Hezkuntzan irakasle-eskarmantua izatea: urte erdi lanaldi osoan edo urtebete lanaldi erdian, gutxienez.
 - 1.c. Haur Hezkuntzako Graduan matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Goi-mailako Gradu Lanbide Prestakuntza egin duela eta Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari titulua lortu duela.
2. EGONALDIA BAKARRIK baliozkotuko da (eta beraz gainerako lana egin behar da) kasu honetan:
 - 2.a. Practicuma egin bitartean, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoan lanean arituz gero. Horrek ez du esan nahi irakasgaiaren gainerako betekizunak bete behar ez direnik.

PRACTICUM II

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotzen da honako kasu honetan.
 - 1.a. Irakasle-ikasketetako Diploma izanez gero.
 - 1.c. Haur Hezkuntzako Graduan matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Goi-mailako Gradu Lanbide Prestakuntza egin duela eta Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari titulua lortu duela.
2. EGONALDIA BAKARRIK baliozkotuko da:
 - 2.a. Ikaslea, arlo publikoan zein pribatuan, Haur Hezkuntzan, maistra-hezitzaile bezala, edo Lehen Hezkuntzan, maistra bezala, lan-jardun osoan ari bada matrikulatuta dagoen espezialitate berean. Horrek ez du esan nahi irakasgaiaren gainerako betekizunak bete behar ez direnik.

PRACTICUM III

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotzen da honako kasu honetan.
 - 1.a. Ikasleak Irakasle Ikasketen Diplomatura badu, matrikulatu den espezialitatean.
 - 1.b. Heziketa Fisikoko minorrean matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduduna dela.
2. EGONALDIA baliozkotuko da soilik:

2.a. Egiaztatzen badu praktikaldian haur-hezkuntzako edo lehen hezkuntzako irakasle gisa diharduela –irakaskuntza publikoan edo pribatuan–, matrikulatu den espezialitatean eta jardunaldi osoan. Horrek ez du inolaz ere esan nahi ikasgaiko beste eskakizunak bete behar ez dituenik (prestakuntza-ikastaroan egin beharreko lana, jarraipen-mintegiak eta amaierako txostena.

3.3 EGONALDIA AURRERATZEA

Practicum 3 irakasgaiaren deialdia aurreratu ahal izango da, ikasleak, GrALa izan ezik, graduiko ikasgai guztiak gainditu dituela egiaztatzen badu.

3.4 PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak argitaratuko du zein diren praktiketarako ikastegi laguntzaileak –erakunde eta ikastetxe laguntzaileen sare egonkorraren kide izango dira–, eta testuinguru zehatz bakoitzaren sailak, lan-ildoak eta garatu beharreko zereginak ezarriko ditu.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak, ikastegiak hautatzerakoan, Praktika Batzordeak adostutako irizpide hauei jarraituko die:

- Arabako ikastetxeei lehentasuna ematea (PRACTICUM I, II eta III).
- Ikastetxe Publikoei lehentasuna ematea.
- Inguru ahuletako ikastetxeei lehentasuna ematea.
- Berrikuntza-proiektuak gauzatzen dituzten ikastetxeei lehentasuna ematea.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultatearekin batera gauzatutako berrikuntza-proiektuak dituzten ikastetxeei lehentasuna ematea.

Ikasleak hiru PRACTICUMak egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta ikaslearen erantzukizuna izango da hori bermatzea. Haur Hezkuntzako ikasleek etapa horri dagozkion bi zikloetan (0-3, 3-6) egin beharko dituzte praktika-egonaldiak. Halaber, Goi-mailako Gradu Lanbide Prestakuntzako Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari tituludunek PRACTICUM 3ko egonaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko dute. Lehen Hezkuntzako ikasleei dagokienez, etapa horri dagozkion 2 edo 3 zikloetan (1.-2., 3.-4., 5.-6.) egin beharko dituzte praktikak, baina komenigarria da aipatutako 3 zikloak ezagutzea.

PRACTICUM III egin ostean, batzordeak egiaztatzen badu eskakizunak ez direla betetzen, PRACTICUM IIIan EZ AURKEZTUA kalifikazioa jarriko zaio ikasleari. Lehen esan bezala, Gorputz Hezkuntzako Minorreko ikasleek bere espezialitateko irakasle batekin burutu beharko dute praktikaldia (Lehen Hezkuntzan beti).

3.5 IKASLEEK IKASTETXEA AUKERATZEA

Ikasleak plaza eskuratzeko bi bide ditu:

1. Komeni zaion ikastetxera zuzenean plaza eske joz, ondoren zehazten diren urratsak betez:

1.a. Ikasleak inprimaki bat jasoko du 1-5 bulegoan (badago fakultatearen webgunetik bajatzea), eta ikastetxean aurkeztu beharko du.

1.b. Inprimaki hori ikastetxeko ZUZENDARIAK bete beharko du, ikaslearen, ikastetxearen eta ikastetxeko tutorearen datuak jarritz. Inportantea da datuok osorik eta ondo irakurtzeko moduan ematea. Inprimakiak balioa izan dezan zuzendariaren sinadura eta ikastetxearen ZIGILUA eraman beharko ditu.

1.c.. Inprimaki hori 1-5 bulegora eraman beharko da, jarritako epeak errespetatuz..

1.d. Hautatutako plazaren xehetasunak GAUR aplikazioaren bitartez emango dira argitara. Garrantzitsua da datuok egiaztatzea eta leudekeen akatsak lehenbailehen jakinaraztea, ikastetxeetara dokumentazio zuzena helarazteko.

1. Dena dela, aurreko bidetik jo nahi ez dutenentzat, Praktiketako Dekanordetzak Arabako Lurralde Historikoan Prakticum 3 irakasgairako eskaintzen den ikastetxeen zerrenda argitara emango du.
2. Azkenik, esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.

3.6 IKASLE KOPURUA IKASGELA BAKOITZEKO

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak proposatzen du PRACTICUMean bi ikasle egon daitezen tutore bakoitzarekin ikasgela berean, ikuspegiak kontrastatzea errazagoa izan dadin, erregistro desberdinak egon daitezen, behaketa- eta analisi-estilo desberdinak egiaztatzeko eta partekatzeko, lankidetzaren sustatzeko eta zereginak banatzeko; memorian, lankidetzaren gisa islatuko da hori guztia. Edonola ere, hori ikastetxearen interesen mende egongo da, horiek erabakiko baitute ikasgela bakoitzeko zenbat ikasle hartu nahi dituzten (1 edo 2). Hala, erabaki hori ikastetxe laguntzaileek zehaztuko dute, ikasturte bakoitzean aurkeztutako plazen eskaintzan.

3.7 TUTORIZAZIOA

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak eta praktiketako ikastetxeko irakasle-tutoreak zuzenduko dituzte praktikaldiak.

Irakasle-tutoreak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak elkarrekin koordinatuko beharko dute, praktiketako ikasleen prestakuntza-beharrak doitzeko eta adosteko.

Ikasleen familiarteko direnak ezin izango dira irakasle-tutore izan.

3.8 IKASLEAK

Plazak esleitzeko prozesua amaitu ostean, ikasleak:

- Esleitutako plazaren datuak egiaztatu beharko ditu.
- Ikastetxera joan beharko du Praktika Planak eskatutako ordu kopuruan.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak antolatutako aurretiko prestakuntzara eta mintegietara joan beharko du.
- Banakako memoria bat egin beharko du, Eskolako tutoreak adierazitako irizpideei jarraituz.

OHARRA: Nahitaez joan beharko du aurretiko prestakuntzara eta mintegietara. Justifikatu gabeko bi falta egiten baditu, ez du ikasgaia gaindituko (ikastetxera egun oso batez huts egiten badu, 2 falta izango ditu: goiza eta arratsaldea). Justifikatutako hutsak lau baino gehiago izanez gero, horiek beste une batean bete beharko ditu.

3.9 PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN FUNTZIOAK

3.9.1 Praktika Dekanordetza

- PRACTICUMaren Plan Orokorra eta Urteko Plana antolatzea.
- Hezkuntza Ordezkaritzarekin harremanak ezartzea.
- Gizarteko eta hezkuntzako ikastetxeekin, elkarteekin eta erakundeekin harremanak ezartzea.
- Hauekin harremanak estutzea: idazkaritzarekin, ikastetxeko eta titulazioko koordinatzaileekin, irakasle-tutorearekin, sailetako zuzendariarekin eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleekin.
- PRACTICUMaren plangintza eta garapena etengabe ebaluatzea.
- Praktika-egutegia proposatzea; gero, Eskolako Batzarrak berretsi beharko du.
- Praktiketari zehar gerta daitezkeen jazoerak ebaztea.
- Praktika-batzordearen bilerak deitzea, praktiken jarraipena egiteko.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari aholku eta ikastetxe gutxienak esleitzea, tutorizazioa egitea errazagoa izan dadin.

3.9.2 Praktika-batzordea

Praktika-batzordea aholkularitzarako organoa da, eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko praktika-modalitate guztiak zuzentzen ditu.

Praktika-batzordeak funtzio hauek ditu, besteak beste:

- Praktika-plana:
 - Praktikak egiteko marko orokorra diseinatzea, dagozkion antolakuntza-arauak zehaztea eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleen artean hedatzea.
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko dokumentazio zehatza sortzea (ikastetxeekin komunikatzea, ikasleen lana gidatzea, ebaluazio-protokoloak...), eta Eskolako Batzarrari aurkeztea, hark onar dezan.
 - Onartutako Praktika Planak zuzentzea, koordinatzea eta ebaluatzea.
- Hobetzeko proposamenak egitea.
- Gatazkak konpontzea:
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko praktika-prozesuarekin lotutako eskaerak eta gertaerak ebaztea.
 - PRACTICUMaren plangintzan, garapenean eta ebaluazioan gerta daitezkeen gatazkak konpontzea.
 - Praktika Plana garatzean gerta daitezkeen gai guztiak ebaztea.
- Plazak kudeatzea:
 - Praktika-ikastetxeak aukeratzea.

- Praktika-plazak esleitzean aplikatutako baremoari buruz ikasleak izan ditzakeen erreklamazioak ebaztea.
- Prestakuntza:
 - Prestakuntza-ikastaroak sustatzea, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreentzat eta ikastetxeetako koordinatzaileentzat.

3.9.3 Hezkuntza Ordezkaritza

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aitorpen- eta pizgarri-sistema bat jarriko du martxan, ikastetxeko irakasleak koordinatzaile eta irakasle-tutore izan daitezen sustatzeko. Gainera, ikasleek ikastetxeetan egonaldiak egiteko adina plaza bermatuko ditu.

3.9.4 Eskolako koordinatzailea

Ikastetxe horretan praktiketan dauden ikasleen prestakuntza-jarduerak koordinatzeaz eta unibertsitatearekiko harremanak mantentzeaz arduratuko da PRACTICUMaren koordinatzailea.

Ikastetxeko zuzendariak, hango ordezkari gorena den heinean, koordinatzailea eta irakasle-tutoreak izendatuko ditu, eta horiek izango dira ikastetxean PRACTICUMa egiten duten ikasleen erreferente. Ahal dela, irakasle-tutoreak PRACTICUMaren ikasleen koordinazioan eta tutorizazioan parte hartu nahi duten irakasleen artean aukeratuko ditu.

Funtzioak:

- PRACTICUMaren ikasleek ikastetxean egiten duten egonaldia erraztea eta beharrezko informazioa ematea.
- Ikastetxean erreferente izatea, unibertsitatearekiko harremanei dagokienez, eta PRACTICUMaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakundeetan egin beharreko lana koordinatzeko.
- Irakasle-tutore bakoitzak PRACTICUMaren ikasleen prestakuntza-prozesuan duen betekizuna zehaztea.
- PRACTICUMaren ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.
- PRACTICUMaren ikasleen eta irakasle-tutoreen arteko bileren egutegia prestatzea.
- PRACTICUMaren ikasleei harrera egitea eta laguntzea, praktikak hasterakoan.
- PRACTICUMeko ikasleei Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezko dokumentuak ematea. Ikastetxearen hezkuntza- eta gizarte-testuingurua azaltzea.
- PRACTICUMaren ikasleei ikastetxeko bizitza instituzionalean parte hartzen laguntzea: klaustroa, sailak, tutoretzak...

3.9.5 Ikastetxeko irakasle-tutorea

Ikastetxeko irakasle-tutorea izango da PRACTICUMaren ikaslearen erreferenterik hurbilena, eta PRACTICUMa tutorizatu beharko du. Horrez gain, funtzio hauek izango ditu:

- Ikastetxean PRACTICUMa koordinatzen duen pertsonarekin eta PRACTICUMeko unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakundeen artean egin beharreko lana koordinatzeko.
- Praktiketako ikasleei harrera egitea, ikasturtean zehar ezartzen diren epeetan.
- Praktiketako ikasleari orientazioa ematea dagozkion taldearen edo unitatearen ezaugarriei, ikastetxeko curriculum-proiektuari eta hezkuntza-taldearen edo unitatearen testuinguruari buruz.
- PRACTICUMean zehar, ikasle bakoitzari laguntza ematea, haren autonomia erraztea eta egin beharreko lanaren erantzukizunaz ohartaraztea.
- Tutorizatzen duen PRACTICUMeko ikasleak egin beharreko prestakuntza-jarduera orokorrak gainbegiratzea.
- Praktiketako ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko zereginetan eta (ahal den heinean) familienganako harremanean parte hartzen laguntzea.
- Ikaslearentzako prestakuntza-ekintza zehatzak proposatzea, hark egin beharreko PRACTICUMaren Plan Orokorraren barruan.
- Ikaslearekin batera, haren jardueraren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzea, haren jarduna hobetzeko.
- Ikastetxeko baliabideak PRACTICUMeko ikaslearen eskura jartzea, dagozkion prestakuntza-ekintzak antolatzea.
- Amaierako txostena egitea, PRACTICUMaren ikaslearen gaitasunak ebaluatzea.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea PRACTICUMa egitean izan daitezkeen jazoerak.
- PRACTICUMa hobetzeko egoki deritzon iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.9.6 Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea

PRACTICUMaren tutorizazioak honako hau esan nahi du:

- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko enborreko ikasgai horretako ikasle-talde baten erantzukizuna hartzea eta haien irakaskuntza bere gain hartzea, egutegian ezarritako aurre formazioa eta jarraipen-mintegiak bere gain hartuta.
- PRACTICUMaren Dekanordetzak eta titulazioaren koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikaslearen praktika-ikastetxea bisitatzea.
- Ikasleak ikasgelan gauzatu beharreko irakaskuntza horretan orientatzea, teoria eta praktika erlazioa ditzan.

- Planteamendu teorikoei jarraitutasuna ematen saiatzea, ikasleak eduki horiek ikasgeletan aplikatu ahal izateko; horretarako, irakasle-tutorearekin lankidetzan estuan arituko da.
- Beharrezkoa balitz, ikasleekin bilerak egitea praktiketan zehar gerta daitezkeen arazoak eta gertaerak banaka edo taldean ebazteko.
- Ikasleei PRACTICUMaren egitaraua ematea.
- Praktiketako ikasleei arreta eta laguntza ematea, ikastetxeetan egiten duten lana gidatzea eta beharrezko orientazioak ematea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta ikasleen irakasle-tutorearekin harremana izatea.
- Ebaluazio-agiriak irakasle-tutoreei bidaltzea, eta horiek bete ostean jasotzea.
- Ikasleei praktika-memoria egitean orientatzea, hori ebaluatzea eta kalifikatzea, ezarritako orientazioen arabera.
- Praktikaldia kalifikatzea, ikasleak gauzatutako lanak, irakasle-tutore bakoitzak egindako ebaluazioa eta ikastetxetara egindako bisitetan jasotako oharrak kontuan izanik.
- PRACTICUMa hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.9.7 Sailetako zuzendariak

PRACTICUMaren zama-banaketa aurreikusten dute, sailaren urteko planaren barruko ikasgai dela kontuan izanik.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak ikasturte bakoitzeko irakaskuntza-antolakuntza egin eta onartu ostean, sailek PRACTICUMaren irakaskuntza esleitu beharko dute, eta betetzen dela bermatu, irizpide hauei jarraituz:

1. Oro har, proposatzen da **irakasle berak mantentzea kreditu praktikoak urteko irakaskuntza-zamari atxikitzean**. Kreditu praktikoak enborrezkoak direnez, ezin dira Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bakoitzaren kredituak osatzeko tresna betegarria izan.
2. Proposatzen da **irakaskuntza-modulu ez-zatituak** esleitzea, Antolakuntza Akademikoko Errektoreordetzak zenbatutako 3 ala 6 kredituen erreferentziarako unitatea aintzat hartuta.
3. **Irakasle bakoitzeko PRACTICUM-kredituen irakaskuntza-zamak ezin ditu 6 kredituak** gainditu.

3.9.8 Titulazioaren koordinatzaileak

- Lankidetzan bide egonkorrak sustatzea eta titulazioen eta PRACTICUMen garapenak koordinatzea, ahalik eta koherentziarik handiena izan dezaten. Horretarako, harremanak ezarriko ditu Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreekin eta haien sailekin.
- PRACTICUM bakoitzaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea, haren pixkanakako garapenean sakonduz joateko.

3.9.9 *Ikasleak*

- PRACTICUMaren fase guztiak ezagutzea eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, plazen banaketa, memoria ematea...), eta horiek betetzen laguntzea.
- Aurretiko prestakuntzarako ikastaroan eta jarraipen-mintegietan laguntzea eta parte hartzea.
- Praktika-ikastetxeko joate- eta puntualtasun-eskakizunak betetzea, eta hango araudia errespetatzea.
- Irakasle-tutorearekin eta Irakasle Ikasketen tutorearekin elkarlanean aritzea.
- PRACTICUMaren programa eta haren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza-erkidegoko eragile guztiekin harreman adeitsuak izatea.
- Esleitutako plazari uko egitekotan, Praktiketako Dekanordetzan horren berri ematea.

4 PRACTICUM III. HELBURU OROKORRA

PRACTICUM IIIak haxe du helburu nagusi: ikasleek proiektu didaktikoak eta hezkuntza-programak (berrikuntzazkoak, lankidetzazkoak, esku-hartzekoak...) diseinatzeko, praktikan jartzeko eta ebaluatzeko gaitasunak garatzea, aurreko PRACTICUMetan egindako lana berrikusiz eta esperientzia zer-nolako ikastetxetan gauzatuko duten aurretik ezagutuz. Gorputz Hezkuntzako minorrari dagokionez, aipatutako hausnarketa eta proiektua Gorputz Hezkuntzarekin lotuko dira beti.

5 GAITASUNAK

5.1 HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMaren GAITASUNAK

Haur Hezkuntzako graduak maisu eta maistra izateko gaitzen ditu ikasleak, PRACTICUMaren bidez lortu beharreko gaitasunak jasotzen dituen abenduaren 27ko ECI/3854/2007 AGINDUAN ezarritako baldintzen arabera:

1. Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa lortzea.
2. Ikasgelan elkarreragiteko eta komunikatzeko prozesuak ezagutzea eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza errazten dituen giroa sustatzeko trebetasunak eta gaitasunak menderatzea.
3. Hezkuntza-prozesua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, eta, batik bat, ikaskuntzari eta irakaskuntzari dagokienez, beharrezko teknikak eta estrategiak menderatzea.
4. Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin erlazionatzea.
5. Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikaren bidez jardunez eta hausnartuz.
6. Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.
7. 0-3 eta 3-6 urteko ikasle-taldean elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.
8. Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.

5.1.1 PRACTICUMaren gaitasunak graduari eta esleiturako ikasgaiari

HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMaren GAITASUNAK		MAILA
1.	Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa lortzea.	P-I
2.	Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazioari behatzea, giro ona sortu ahal izateko.	P-I
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I
4.	Ikasgelan elkarrengaitzeko eta komunikatzeko prozesuak ezagutzea eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza errazten dituen giroa sustatzeko trebetasunak eta gaitasunak menderatzea.	P-II
5.	Bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko eta adierazteko gaitasunak hobeto menderatzea, ikasgelan eta ikasgelaz kanpo.	P-II
6.	Hezkuntza-prozesua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, eta, batik bat, ikaskuntzari-irakaskuntzari dagokionez, beharrezko teknikak eta estrategiak menderatzea.	P-II
7.	Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin erlazionatzea.	P-II
8.	Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikaren bidez jardunez eta hausnartuz.	P-II
9	Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.	P-III
10	0-3 eta 3-6 urteko ikasle-taldean elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.	P-III
11	Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.	P-III
12	Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.	P-III

5.1.2 Haur Hezkuntzako PRACTICUM IIIren gaitasunen eta laugarren mailako gaitasunen arteko erlazioa

HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMaren GAITASUNAK		MAILA	Mailako gaitasuna
9.	Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.	P-III	<p>4.1. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.</p> <p>4.2. Etapa horretako esperientzia-eremuetan proposamen didaktikoak egitea eta ebaluatzea, hainbat metodologia didaktiko erabilia.</p> <p>4.3. Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak hobetzeko proiektu berritzaileak diseinatzeko beharrezkoa den informazioa aztertzea eta laburbiltzea, eskolako erkidegoarekin eta gizarte-inguruarekin elkarlanean.</p>
10.	0-3 eta 3-6 urteko ikasle-taldeen elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.	P-III	<p>4.1. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.</p> <p>4.4. Hausnarketarako autonomia, eta argumentatzeko, iritzi akademikoak eta profesionalak emateko, erabakiak hartzeko eta hezkuntza-arazoak bakarka nahiz elkarlanean ebazteko gaitasuna garatzea.</p>
11.	Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.	P-III	<p>4.3. Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak hobetzeko proiektu berritzaileak diseinatzeko informazio garrantzitsua aztertzea eta laburbiltzea, eskolako erkidegoarekin eta gizarte-inguruarekin elkarlanean.</p> <p>4.4. Hausnarketarako autonomia, eta argumentatzeko, iritzi akademikoak eta profesionalak emateko, erabakiak hartzeko eta hezkuntza-arazoak banaka nahiz elkarlanean ebazteko gaitasuna garatzea.</p>
12.	Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.	P-III	<p>4.1. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.</p> <p>4.2. Etapa horretako esperientzia-eremuetan proposamen didaktikoak egitea eta ebaluatzea, hainbat metodologia didaktiko erabilia.</p>

5.2 LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK

Lehen Hezkuntzako graduak maisu eta maistra izateko gaitzen ditu ikasleak, PRACTICUMaren bidez lortu beharreko gaitasunak jasotzen dituen abenduaren 27ko ECI/3854/2007 AGINDUAN ezarritako baldintzen arabera:

1. Ikasgelaren (gimnasioa Gorputz Hezkuntzaren kasuan) eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa lortzea.
2. Ikasgelan elkarreragiteko eta komunikatzeko prozesuak ezagutzea eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza errazten dituen giroa sustatzeko trebetasunak eta gaitasunak menderatzea.
3. Hezkuntza-prozesua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, eta, batik bat, ikaskuntzari eta irakaskuntzari dagokionez, beharrezko teknikak eta estrategiak menderatzea.
4. Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin erlazionatzea.
5. Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikaren bidez jardunez eta hausnartuz.
6. Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.
7. 6-12 urteko ikasle-taldeen elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea. Aro garaikideko Gorputz Hezkuntzako komunikazio eta interakzio ereduen inguruan hausnartzea. Eskola mistoaren eta bereiztuaren (sexuaren arabera) eragina Gorputz Hezkuntzako ereduetan.
8. Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.

5.2.1 PRACTICUMaren gaitasunak graduari eta esleitutako ikasgaiari

LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK		MAILA
1.	Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa lortzea.	P-I
2.	Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazioari behatzea, giro ona sortu ahal izateko.	P-I
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I
4.	Ikasgelan elkarrengaitzeko eta komunikatzeko prozesuak ezagutzea eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza errazten dituen giroa sustatzeko trebetasunak eta gaitasunak menderatzea.	P-II
5.	Bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko eta adierazteko gaitasunak hobeto menderatzea, ikasgelan eta ikasgelaz kanpo.	P-II
6.	Hezkuntza-prozesua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, eta, batik bat, ikaskuntzari-irakaskuntzari dagokionez, beharrezko teknikak eta estrategiak menderatzea.	P-II
7.	Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin erlazionatzea.	P-II
8.	Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikaren bidez jardunez eta hausnartuz.	P-II
9	Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.	P-III
10	6-12 urteko ikasle-taldean elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.	P-III
11	Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.	P-III
12	Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.	P-III

5.2.2 *Laugarren mailako gaitasunen eta Lehen Hezkuntzako PRACTICUM IIIren gaitasunen arteko erlazioa*

LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMaren GAITASUNAK	MAILA	Mailako gaitasuna
9. Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.	P-III	<p>4.1. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.</p> <p>4.2. Etapa horretako esperientzia-eremuetan proposamen didaktikoak egitea eta ebaluatzea, hainbat metodologia didaktiko erabilia.</p> <p>4.3. Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak hobetzeko proiektu berritzaileak diseinatzeko garrantzitsua den informazioa aztertzea eta laburbiltzea, eskolako erkidegoaren eta gizarte-inguruarekin elkarlanean.</p>
10. 0-3 eta 3-6 urteko ikasle-taldean elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.	P-III	<p>4.1. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntzan dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.</p>
11. Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.	P-III	<p>4.3. Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak hobetzeko proiektu berritzaileak diseinatzeko informazio garrantzitsua aztertzea eta laburbiltzea, eskolako erkidegoaren eta gizarte-inguruarekin elkarlanean.</p> <p>4.4. Hausnarketarako autonomia, eta argumentatzeko, iritzi akademikoak eta profesionalak emateko, erabakiak hartzeko eta hezkuntza-arazoak banaka nahiz elkarlanean ebazteko gaitasuna garatzea.</p>
12. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntzan dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.	P-III	<p>4.1. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntzan dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.</p> <p>4.2. Etapa horretako esperientzia-eremuetan proposamen didaktikoak egitea eta ebaluatzea, hainbat metodologia didaktiko erabilia.</p>

6 EDUKIAK

- 1. IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUA KRITIKOKI EBALUATZEA. PRACTICUM I eta IIaz MODU AUTOKRITIKOAN OROITZEA, ORDUAN SORTUTAKO DOKUMENTUETAN OINARRITUTA**
 - 1.1. Ikastetxearen eta haren testuinguru sozialaren eta kulturalaren arteko harremana eta lankidetzak. Proiektu eta programa motak (baita Gorputz Hezkuntzakoa ere). Alderdi bakoitzaren azterketa.
 - 1.2. Umeekiko, tutorearekiko eta beste irakasleekiko harremana eta komunikazioa
 - 1.3. Irakaskuntzaren plangintzari eta antolakuntzari lotutako alderdiak.
 - 1.4. Ikasgela bizitzea eta kudeatzea.
 - 1.5. Esku-hartze proposamenaren irizpide pedagogikoak eta didaktikoak.

- 2. ESKU-HARTZEAREN EREMUA AZTERTZEA.**
 - 1.1. Zeregina aztertzea eta definitzea.
 - 1.1.1. Aurrekariak.
 - 1.1.2. Erakunde-markoa.
 - 1.2. Erreferentzia-marko teorikoa.
 - 1.3. Esku hartzeko estrategiak.

- 3. PROPOSAMENA DISEINATZEA, PRAKTIKAN JARTZEA ETA EBALUATZEA.**
 - 3.1. Prozesua zehaztea: proiektuaren edo programaren faseak.
 - 3.2. Esku-hartzea diseinatzea.
 - 3.3. Esku-hartzearen proposamena praktikan jartzea.
 - 3.4. Esperientzia sistematikoki erregistratzea.
 - 3.5. Prozesuak eta emaitzak aztertzea.
 - 3.6. Hobetzeko proposamenak.

- 4. PRACTICUM IIIri BURUZKO HAUSNARKETA ETA BALORAZIOA. MEMORIA EGITEA ETA AURKEZTEA.**

7 FASEAK ETA ZEREGINAK

Puntu honetan praktiketako ikasleak egin beharrekoak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari dagozkion zereginak agertuko dira taula baten bere faseak adierazita. Taulak hainbat atal ditu:

1.-Ikasleen jarraipena, eskolen eta hango irakasleen arteko harremana eta mintegi bakoitzean landu beharreko gaiak egituratzea eta antolatzea da **lan-faseen** helburua.

- .Lehen fasean (prestakuntza izeneko) alde batetik, aurreko PRACTICUMak aztertzen dira, eta bestetik, ikasleek ikastetxea ezagutuko dute bere esku-hartze proposamena egiteko.
- .Bigarren fasea, (praktikaldia, ikasleek esku-hartzea zer testuingurutan gauzatuko den ezagutuko du, eta irakasle-tutorearekin esku-hartzea adostu, diseinatu eta praktikan jarriko du.
- Azkenik, III. fasean, ikasleak esperientziaren gaineko hausnarketa eta balorazioa egingo du, eta amaierako memoria idatzi.

2.-Zereginak, adierazleak eta gaitasunak: hiru atal horiek lotura estua dute elkarren artean, eta ikastetxe, ikasle edo praktika-tutore bakoitzaren beharretara egokitu daiteke. Azpimarratu behar da **adierazleak** jasoz eta ebaluatuz errazago egingo dela **balorazioa**. Lan hori etengabe gauzatu behar da, ikaslea ikastetxean egon bitartean, aurretiko prestakuntzan eta mintegietako lanean.

Amaitzeko, eta dokumentu honen irakurketa errazteko asmoz, **gaitasunei** zenbakizko erreferentzia bat jarri zaie; dagokion atalarekin bat dator erreferentzia.

Lan-fasea	Fase bakoitzaren zeregin zehatzak		Adierazleak	Gaitasunak
	Ikasleak	Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea		
I. FASEA. PRESTAKUNTZA (1) PRACTICUM I eta PRACTICUM IIz modu autokritikoan oroitzea, orduan sortutako dokumentuetan oinarrituta.	1.1. Ikastetxearen eta haren testuinguru sozial eta kulturalaren (erkidegoko zerbitzuak eta hezkuntza-eragileak, familiak...) arteko harremanari eta horrek ikasgelan duen eraginari lotutako alderdiak aztertzea.	1.1.1. Praktiketako ikasleentzako tresnak sustatzea eta eskaintzea, aurreko praktketan ikusitako testuingurua kritikoki azter dezaten.	1.1.a. Ikastetxeko eta ikasgelako lanean eragin zuzena duten kanpo-alderdiak deskribatzea. 1.1.b. Alderdi horiek ikastetxearen eta ikasgelaren funtzionamenduan duten eraginari buruz hausnartzea. 1.1.c. Ikastetxearen eta ikasgelaren funtzionamenduak ikaslearen testuinguru sozialean eta kulturean duen eraginari buruz hausnartzea.	11. eta 12. gaitasunak.

	<p>1.2. <u>Ikasle, tutore eta beste irakasleenganako komunikazio</u> eta harremanekin lotutako alderdiak aztertzea, batik bat honako hauek kontuan hartuta,: irakaskuntza-ikaskuntza egoerak, nortasunaren eraikuntza (generoa, etnia, klasea eta gaitasuna), gatazkak konpontzeko estrategiak, tutoretza-jarduerak eta ikasgelan komunikatzeko eta elkarreragiteko prozesuak. Oinarrizko hobekuntza-lerroak identifikatzea.</p>	<p>1.2.1 Ikasleek aurreko egonaldietan izandako harremanak kritikoki azter ditzaten sustatzea eta horretarako tresnak eskaintzea</p>	<p>1.2.a. Gaitasun pertsonalei antzematea, ikasleenganako, tutoreeta beste irakasleenganako harremanei dagokienez.</p> <p>1.2.b. Ikasle, tutore eta beste irakasleekiko komunikazioa errazten duten testuinguruei antzematea.</p> <p>1.2.c. Ikasle, tutore eta beste irakasleekiko komunikazioa zailtzen duten testuinguruei antzematea. Gimnasioko espazioen eta materialen kudeaketa zailtzen duten akatsei antzematea.</p> <p>1.2.d. Ikasle, tutore eta beste irakasleekiko komunikazioan izandako hutsuneak eta ahuleziak identifikatzea.</p>	<p>12. gaitasuna</p>
--	--	--	---	----------------------

		<p>1.2.2. Oinarrizko hobekuntza-ildoak egokiak diren eztabaidatzea.</p>	<p>1.2.e Gaitasun sozialak sustatuko dituzten hobekuntza-ildoak.</p> <p>1.2.f. Akatsak zuzentzen eta ahuleziak murrizten laguntzen duten hobekuntza-ildoak.</p>	<p>12. gaitasuna</p>
--	--	---	---	----------------------

	<p>1.3.- <u>Irakaskuntzaren plangintza eta antolakuntzarekin</u> lotutako alderdiak aztertzea, honako hauek kontuan hartuta, batik bat: burututako zereginak eta praktikak, proposatutako jarduerak, ebaluazioa eta ikaskuntza-maila.</p> <p>Oinarrizko hobekuntza-lerroak identifikatzea.</p>	<p>1.3.1. Praktiketako ikasleentzako tresnak sustatzea eta eskaintzea, aurreko egonaldietako irakaskuntzaren plangintza eta antolakuntza kritikoki azter ditzaten.</p>	<p>1.3.a. Irakaskuntzaren plangintza eta antolakuntza kritikoki aztertzea, antzemandako akatsak eta ongi egindako gauzak deskribatuz.</p> <p>1.3.b. Irakaskuntzaren plangintzari eta antolakuntzari lagunduko dieten hobekuntza-ildoak.</p>	<p>12. gaitasuna</p>
	<p>1.4.-<u>Ikasgelaren kudeaketarekin</u> lotutako alderdiak aztertzea: denboraren eta taldeen antolakuntza, berdintasunezko parte-hartzearen kontrola eta kudeaketa, aniztasunaren tratamendua (hezkuntza-behar</p>	<p>1.4.1 Praktiketako ikasleek ikasgela aurreko egonaldietan ikasgela kudeatzeko modua kritikoki azter dezaten sustatzea eta horretarako tresnak eskaintzea.</p>	<p>1.4.a. Ikasgelaren kudeaketa kritikoki aztertzea, antzemandako akatsak eta ongi egindako gauzak deskribatuz.</p>	<p>12. gaitasuna</p>

	bereziak, generoa, kultura artekotasuna, gatazkak...). Oinarrizko hobekuntza-lerroak identifikatzea.	1.4.2. Oinarrizko hobekuntza-ildoak egokiak diren eztabaidatzea.	1.4.b. Ikasgela kudeatzeko hobekuntza-ildoak.	
	1.5. Proposatutako hobekuntza-ildoak bateratzea, eta, horietatik abiatuta, hurrengo fasearen oinarri diren irizpide pedagogiko eta didaktiko giltzarriei buruz hausnartzea.	1.5.1. Ikasle-taldearen hausnarketa sustatzea, elkarlanaren bidez irizpide pedagogiko eta didaktikoak zehazteko.	1.5.a. Proposatutako hobekuntza-ildoei oinarri ematen dieten irizpide koherenteak.	12. gaitasuna
	1.6.- Ikasle bakoitzak adostutako ildoetako bati edo biri atxikitzea.	1.6.1. Lantaldeak sustatzea eta antolatzea, antzeko interes-ildoen araberako proiektu komunak sortzeko.	1.6.a. Interes-ildoen zerrenda osatzea, PRACTICUM IIIren egonaldian zehar esku-hartze proposamenak aurrera eramateko.	12. gaitasuna

I. FASEA. PRESTAKUNTZA (2) Esku-hartzeko proposamenen zirriborroa.	2.1. Ikastetxearen proiektua zuzendaritzarekin kontsultatzea, horrek minorrarekin eta/edo aurretik egindako analisietan antzemandako alderdiekin zer lotura duen ezartzeko.	2.1.1. Ikaslearen harremana erraztea praktikak egingo ditueneko ikastetxearen zuzendaritzarekin.	2.1.a. Minorraren eta aurreko prestakuntza-fasean egindako lanetik ateratako ondorioen eta ikastetxeko proiektuaren arteko erlazioak ezartzea.	12. gaitasuna
		2.1.2. Ikasleari erlazioak ezartzen laguntzea minorraren eta aurreko prestakuntza-fasean egindako lanetik ateratako ondorioen eta ikastetxeko proiektuaren artean.		
	2.2. Esku-hartzeko zenbait proposamen zehaztea.	2.2.1. Esku-hartze aukerak aztertzea ikaslearekin batera.	2.2.b. Esku-hartzeko proposamenak ikastetxeko hezkuntza-proiektuari egokitzea.	9. gaitasuna
2.3. Tutorearekin biltzea, ikasgelako programazioa, metodologia eta baliabideak ezagutu ahl izateko.	2.3.1. Ikasleak irakasle-tutorearekin izango duen bilera prestatzen laguntzea.	2.3.a. Esku-hartzeko proposamenak egokitze garrantzitsuak diren ikasgelako alderdiei buruzko informazioa biltzea.	9. eta 11. gaitasunak	

	2.4. Praktikaldirako esku-hartzeko proposamenen zirriborroa egitea, ikasgelako programazioari, metodologiari eta baliabideei egokituta.	2.4.1. Praktikaldirako esku-hartzeko proposamenen zirriborroa adostea eta gainbegiratzea.	2.4.a. Praktikaldirako esku-hartzeko proposamenen zirriborroa egitea, ikasgelako programazioari, metodologiari eta baliabideei egokituta.	9. gaitasuna
		2.4.2. Taldeak berregituratzea, esku-hartzeko proposamenen antzekotasunaren eta koherentziaren arabera.	2.4.b. Elkarlanerako aukerak aztertzea eta egokitzea.	
II. FASEA. PRAKTIKA ALDIA (1). Esku-hartzeko proposamena negoziatzea eta adostea.	3.1. Tokian bertan ezagutzea esku-hartzeko proposamenak zer talderi egokitu behar zaizkion.	3.1.1. Taldearen-ikasgelaren errealitatea ezagutzeko irizpideak izaten laguntzea.	3.1.a. Taldearen ezaugarri esanguratsuak antzematea.	12. gaitasuna

	3.2. Praktikaldirako esku-hartzeko proposamenen bigarren zirriborrea egitea.	3.2.1. Bigarren zirriborrea egiteko egokiak diren esku-hartzeko proposamenak aukeratzen laguntzea.	3.2.a. Bigarren zirriborrea egitea, ikasgelako talde osoaren errealitateari egokitutako esku-hartzeko proposamenekin.	12. gaitasuna
	3.3. Praktikaldirako esku-hartzeko proposamenen bigarren zirriborrea tutoreari aurkeztea, eta esku-hartze horien ildo nagusiak harekin adostea.	3.3.1. Bigarren zirriborrea irakasle-tutorearekin egindako bileren emaitzetara egokitzen laguntzea, banaka zein taldeka.	3.3.a. Bigarren zirriborrea irakasle-tutorearekin egindako bileratik sortutako emaitzetara egokitzea. 3.3.b. Bigarren zirriborro egokitua taldearen aurrean aurkeztea irakasle-tutoreekin elkarrizketak egin ostean.	9., 11. eta 12. gaitasunak.

	3.4. Banakako eta taldekako hausnarketa egin ostean, esku-hartzea zehaztea,.	3.4.1. Esku-hartzearen ildo adosten eta koherente egiten laguntzea.	3.4.a. Esku-hartzearen ildo adostea eta zehaztea.	9., 11. eta 12. gaitasunak
--	--	---	---	----------------------------

II. FASEA. PRAKTIKA ALDIA (2) Esku-hartzea diseinatzea.	4.1. Esku-hartzea diseinatzea, ondoko alderdiekin lotutako curriculum-irizpideak errespetatuz: gaitasunak, edukiak, egin beharreko zereginak, denboraren antolakuntza, espazioa eta taldeak, baliabideak eta ebaluazioa.	4.1.1. Ikasleei tresnak eta ereduak ematea, diseinuak egiteko.	4.1.a. Curriculum-irizpideei egokitzen zaizkien diseinuak.	9. eta 12. gaitasunak
		4.1.2. Diseinu bakoitzaren ildo nagusiak taldean aurkeztu eta eztabaidatu daitezen sustatzea, hobekuntzarako elementuak ondorioztatzeko.	4.1.b. Ikasle edo talde bakoitzak azaltzea aukeratutako ereduaren logika, eta arrazoitzea zergatik den hori egokia egin beharreko esku-hartzerako, elementu bakoitza gainerakoekin erlazionatuz.	
	4.2. Diseinua hobetzea, parte hartzen duten eragileekin erkatuz (tutoreak, kideak...).	4.2.1. Diseinua hobetu dadin laguntzea.	4.2.a. Ikasle edo talde bakoitzak aukerak proposatzea, beren kideen eta tutoreen ebaluazioa abiapuntu izanik.	9. eta 12. gaitasunak

II. FASEA. PRAKTIKA ALDIA (3) Esku-hartzeko proposamena praktikan jartzea.	5.1. Proposatutako esku-hartzea praktikan jartzea, eta gertatutakoa sistematikoki jasotzea (gertaerak, programan egindako aldaketak eta egokitzapenak, gaizki-ulertuak...), eguneroko bat idatziz.	5.1.1. Ikasleei tresnak eta irizpideak ematea, gertatutakoa sistematikoki jasotzen laguntzeko.	5.1.a. Hasierako proposamenari egindako egokitzapenak eta aldaketak justifikatzea (ikaskuntza-erritmo desberdinetara egokitzeko aldaketak eta taldearen beste errealitate zehatzak). 5.1.b. Ikasgelan gertatutakoa era zorrotzean eta koherentean jasotzea: jazoerarik interesgarrienak, arazoak, emandako konponbideak, zailtasunak, sentimenduak, afektuen kudeaketa, ikasleenganako komunikazioa...	9., 10. eta 12. gaitasunak
		5.1.2. Hausnarketa eta introspektzioa errazteko galderak egitea.		
		5.1.3. Egunerokoa egiteko orientazioa ematea.		

	5.2. Ikaskuntza-prozesuak aztertzea, irakaskuntza-prozesuei dagokienez.	5.2.1. Hartutako aukera metodologikoak ebaluatzea, eta hoiei buruzko hausnarketa piztea.	5.2.a. Irakaskuntza-egoeren alderdi garrantzitsuak ebaluatzea (materialak, taldearen kudeaketa, jardueren sekuentzia...), ikaskuntzari dagokionez. 5.2.b. Planteatutako ikaskuntza-irakaskuntza egoerek sustatzen duten erronka kognitiboa ebaluatzea.	9., 10. eta 12. gaitasunak
	5.3. Ikasgela osoko taldearen eta ikasle bakoitzaren ikaskuntzaren prozesua eta emaitza ebaluatzea.	5.3.1. Esku-hartzetik eratorritako ikaskuntzaren lorpenak eta hutsuneak eta horien zergatia aztertzen laguntzea.	5.3.a. Diseinatutako ebaluazioaren eta esku-hartzearen arteko koherentzia.	12. gaitasuna
III. FASEA. HAUSNARKETA ETA BALORAZIOA. MEMORIA IDAZTEA.	6.1. Aurretiko prestakuntza, jarraipen-mintegiak, gauzatutako lana eta lortutako ikaskuntza eta horrek guztiak ikasgelan egindako jardueran izan duen eragina ebaluatzea.	6.1.1. Mintegietan gidoi bat ematea memoria idazteko.	6.1.a. Ebaluatzea aurretiko prestakuntzaren eta mintegien alderdirik nabarmenenak eta gauzatutako jardueran izan duten eragin zuzena eta zeharkakoa, eta egindako lanari buruz modu autokritikoan hausnartzea.	12. gaitasuna

	6.2. Gauzatutako ikaskuntza-prozesuaren azken hausnarketa, erabaki zuzenak , izandako akatsak eta kontraesanak jasoz.	6.2.1. Galdera zehatzei erantzutea.	6.2.a. Esperientzia modu kritikoan eta autokritikoan berrikustea, ebidentziak aurkeztuz (erabakiak, gertakaririk garrantzitsuenak) eta dagozkion erlazioak ezarriz.	12. gaitasuna
	6.3. Garapen pertsonalaren eta profesionalaren gaineko itxaropenak zenbateraino bete diren hausnartzea.	6.3.1. Galdera zehatzei erantzutea.	6.3.a. Garapen pertsonalaren eta profesionalaren gaineko itxaropenak zenbateraino bete diren eta horiek izandako esperientziarekin duten erlazioa aztertzea eta ebaluatzea.	12. gaitasuna

8 MEMORIARAKO GIDOI BATEN PROPOSAMENA, PRACTICUM III

Aurkibidea

- 1. Sarrera**
- 2. PRACTICUMaren aurreko esperientzia modu autokritikoan gogoratzea**
 - 2.1. Ikastetxeak bere testuinguru sozialarekin eta kulturalarekin duen harremanarekin, ikasleekiko, tutoreekiko eta beste irakasleekiko komunikazioarekin, irakaskuntzaren plangintzarekin eta antolakuntzarekin eta ikasgelaren kudeaketarekin lotutako alderdiak aztertzea (ikus taulako 1.1., 1.2., 1.3., 1.4. puntuak)
 - 2.2. Aurreko analisiaren ondorioak eta hobekuntza-ildoak (ikus taulako 1.5., 1.6. puntuak)
- 3. Esku-hartzeko proposamenak diseinatzea:**
 - 3.1. Justifikazioa (ikus taulako 2.1, 2.2, 2.3, 3.1., 3.2., 3.3., 3.4 puntuak).
 - 3.2. Programazioa eta metodologia: taldea, gaitasunak, edukiak, egin beharreko zereginak, denboraren antolakuntza, espazioa eta taldeak, baliabideak eta ebaluazioa (ikus taulako 2.4, 3.2., 3.4., 4.1., 4.2. puntuak).
- 4. Esku-hartzeko proposamena praktikan jartzea:**
 - 4.1. Deskribapena eta analisia: egindako aldaketak, arrazoiak, aurkitutako konponbideak (ikus taulako 5.1. puntua).
 - 4.2. Balorazioa: (ikus taulako 5.2., 5.3. puntuak).
 - 4.2.1. Prozesua ebaluatzea.
 - 4.2.2. Lorpenak ebaluatzea, planteatutako gaitasunei dagokienez.
 - 4.2.3. Esku-hartzea ebaluatzea.
- 5. Esperientziaren gaineko hausnarketa eta balorazioa.**
 - 5.1. Aurretiko prestakuntza, jarraipen-mintegiak eta izandako eginkizuna ebaluatzea (6.1.).
 - 5.2. Irakaskuntza-prozesua ebaluatzea (erabaki zuzenak, akatsak, kontraesanak) (6.2.).
 - 5.3. Garapen pertsonalaren eta profesionalaren gaineko itzaropenak bete diren ebaluatzea (6.3.).
- 6. Bibliografia.**
- 7. Eranskinak.**

9 ANTOLAKUNTZA

9.1 KRONOGRAMA

	EGONALDIA PRAKTIKETAKO IKASTETXEETAN	ALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5 aste. (30 ordu astean)	Urria	Haur hezkuntza: 8 kreditu. Lehen hezkuntza: 9 kreditu
PRACTICUM II	7 aste. (30 ordu astean)	Otsaila-martxo	Haur hezkuntza: 12 kreditu. Lehen hezkuntza: 11 kreditu
PRACTICUM III	10 aste. (30 ordu astean)	Azaroa-abendua-urtarrila	Haur hezkuntza: 18 kreditu. Lehen hezkuntza: 18 kreditu

9.2 AURRETIKO PRESTAKUNTZA

Praktiketako ikastetxean egonaldia egin aurretik, ikasleak 8 orduko prestakuntza egin beharko du. Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasleari jakinaraziko zaio prestakuntza hori zein egunetan nola egingo duen.

Prestakuntza-ikastarora JOATEN EZ DENAK 3 PUNTU galduko ditu AMAIERAKO NOTAN. (Ikasleren bat prestakuntza-ikastarora batzuetan joan bada, baina beste batzuetan ez, tutoreak huts egindako orduei dagokien murrizketa proportzionala aplikatuko du).

Era berean, *jarraipen-mintegietara JOATEN EZ DENAK 1 PUNTU galduko du AMAIERAKO NOTAN, joaten ez den mintegi bakoitzeko.*

9.3 PRACTICUMAREN KREDITUEN BANAKETA

PRACTICUM I (8 kreditu Haur Hezkuntzan, 9 kreditu Lehen Hezkuntzan)

- Praktiken aurreko prestakuntza: 1 kreditu (10 ordu).
- Egonaldia: 6 kreditu (5 aste, 6 ordu egunean, 30 ordu astean igarotzea ikastetxean).
- Memoria idaztea: 1 kreditu.
- PRACTICUMean zehar jasotako aholkularitza: 1 kreditu (5 aste, 2 ordu astean).

PRACTICUM II (12 kreditu Haur Hezkuntzan, 11 kreditu Lehen Hezkuntzan)

- Praktiken aurreko prestakuntza: 1 kreditu (10 ordu).

- b. Egonaldia: 8 kreditu (7 aste, 6 ordu egunean, 30 ordu astean).
- c. Memoria idaztea: 1 kreditu.
- d. PRACTICUMean zehar jasotako aholkularitza: 1 kreditu (10 ordu 7 astetan zehar banatuta, 1 ordu eta erdi astean).

PRACTICUM III (18 kreditu)

- a. Praktiken aurreko prestakuntza: 1 kreditu (10 ordu).
- b. Egonaldia: 13 kreditu (10 aste, 6 ordu egunean, 30 ordu astean).
- c. Memoria idaztea: 1 kreditu.
- d. PRACTICUMean zehar jasotako aholkularitza: 1 kreditu (30 ordu hamar astetan zehar banatuta, 3 ordu astean).

10 EBALUAZIOA

1. Praktiken kalifikazioa hauen arabera zehaztuko da:

- Irakasle-tutorearen balorazioa (notaren % 30).
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa:
 - Praktika-txostena (% 40).
 - Ikasleak mintegietan eta aurretiko prestakuntzan egindako lana (% 30).

Praktikak gainditzeko, aipatutako bi balorazioak gainditu behar dira.

2. Ikastetxeko egonaldiaren, praktika-txostenaren eta mintegietan eta aurretiko prestakuntzan egindako jardueren kalifikazioak egin diren ikasturtean soilik izango dira baliozkoak.

3. Praktikek zer kasutan duten **GUTXIEGI** kalifikazioa eta horrek izango dituen ondorioak:

- **Txostenak gutxiegi kalifikazioa izatea lehen deialdian:**

- Kasu horretan, ikasleak beste txosten bat egin beharko du. Ikastetxeko tutorearen nota praktika-egonaldiari dagokion ikasturteko deialdiak kalifikatzeko soilik izango da baliozkoa.

- **Txostenak gutxiegi kalifikazioa izatea bigarren deialdian:**

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

- **Ikastetxeko irakaskuntza-praktiketan gutxiegi kalifikazioa izatea:**

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

- **Mintegietan eta aurretiko prestakuntzan gutxiegi kalifikazioa izatea:**

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

- **Praktiketako ikastetxera justifikaziorik gabe bi aldiz huts egitea:**

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

4. Praktika-txostenak idazkaritzan eta horretarako ezarritako epeetan soilik eman daitezke. Ikasleak horrela egiten ez badu, EZ AURKEZTUA izango du kalifikazioetan.

10.1 PRACTICUM III: PRAKTIKALDIEN BALORAZIO ORRIA

IRAKASLE TUTOREA:.....

IKASTETXEA:

.....

IKASLEA:

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ondoren zehaztutako ebaluazio-irizpideak ikasleak lortu beharreko gaitasunekin lotuta daude. Orientatzeko baino ez dira. Horiekin espero da irakasle-tutoreari ebaluazioa egiten laguntzea.

GAITASUN TEKNIKOA (Jakitea eta Egiten jakitea)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Irakatsi beharreko edukiak sakon ezagutzen ditu, eta, beraz, konplexutasun-maila desberdinetan landu ditzake.										
Irakatsi beharreko prozedurak sakon ezagutzen ditu, eta, beraz, konplexutasun-maila desberdinetan landu ditzake.										
Ezagutzak aurkeztean, zentzua ematen die, eta elkarren artean erlazionatzen ditu.										
Irakatsi beharreko alderdi nagusiak argi ezagutu eta azpimarratu egiten ditu, horien ikaskuntza hobeto sustatzeko.										
Irakatsi beharreko ikasgairako, hizkuntza egokia erabiltzen du, eta ikasleek ulertzeko eta erabiltzeko moduko hiztegia bilatzen du.										
Ikasgelan izandako arazoaren eta zalantzen gaineko informazioa bilatzen du, eta aztertu egiten du.										
Edukiak azaltzean eta sakontzean, ikasleen ezagutzetara egokitzen diren adierazpide desberdinak bilatzen ditu.										

GAITASUN METODOLOGIKOA (Jakitea eta Egiten jakitea)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Irakasle-tutorearekin adosten du esku-hartzeko proposamena.										
Baliabide, material eta dokumentazio anitz erabiltzen du hezkuntza esku-hartzea diseinatzeko eta martxan jartzeko.										
Esku-hartzea diseinatzen du, hauekin lotutako curriculum-irizpideak errespetatuz: gaitasunak, edukiak, egin beharreko zereginak, denboraren antolakuntza, espazioa eta taldeak, baliabideak eta ebaluazioa.										
Ikasleekiko komunikazioa sustatzen du.										
Ikaskuntza-erritmo desberdinetara eta praktikaren baldintzetara egokitzen du esku-hartzea.										
Irakaskuntza-prozesuaren faktoreak kudeatzen ditu (taldeak, jardueren sekuentzia, baliabideak...), ikaskuntzei dagokienez.										

10.2 PRACTICUM III: PRAKTIKALDIEN BALORAZIO ORRIA

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEKO TUTOREA:.....

IKASLEA:.....

ESPEZIALITATEA: MAILA: IKASTURTEA:

ZENBAGARREN DEIALDIA:

Ebaluazio-fitxa hau osatzeko, komenigarria da ikasleak egin beharreko zereginen dagozkion adierazleak kontuan izatea. Adierazle horiek Praktiketako Plan Orokor honetako 8. puntuari deskribatzen dira.

Praktiken kalifikazioa ezartzeko, honako datu hauek ebaluatuko dira:

- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa (% 70):
 - Aurretiko prestakuntzan eta mintegietan egindako lana: % 30.
 - Praktika-txostena: % 40.
- Irakasle-tutoreak ikaslearen lanaren gainean emandako balorazioa: % 30.

MINTEGIAK ETA AURRETIKO PRESTAKUNTZA (amaierako notaren % 30)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Eztabaidetan parte hartzen du, eta besteenganako jarrera adeitsua du.										
Egindako jardueretan parte hartzen du.										
Adostutako lanak gauzatzen ditu.										
Bere esperientziak azaltzen ditu, eta taldeko hausnarketan parte hartzen du.										
Esperientzia eta ezagutza teorikoak erlazionatzen ditu.										
Jarrera kritikoa du bere praktikekin eta ezagutzeekin.										
Ikastetxean egin dituen praktikak aztertzen ditu, eta ikaskideen praktikekin erlazionatzen ditu.										
BALORAZIO OROKORRA:										

AMAIERAKO MEMORIA (amaierako notaren % 40)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Memoriaren koherentzia orokorra: atalen ordena eta lotura.										
Dokumentazioa eta oinarri teoriko eta praktikoak bilatu ditu.										
Alderdi formalak: aurkezpena, aurkibidea, ordena, estiloa, zuzentasuna (morfosintaktikoa, lexikoa, ortografia), aipuak, bibliografia...										
Sekuentzia didaktikoa praktikan jartzeko prozesua azaltzen du, arrazoiak emanez.										
Ikastetxeko praktiken balorazioa.										
Ikastetxeko praktiken auto-ebaluazioa.										
Hezkuntza eta Kirol Fakultateko mintegien eta aurretiko prestakuntzaren balorazioa.										
Hezkuntza eta Kirol Fakultateko mintegien eta aurretiko prestakuntzaren auto-ebaluazioa.										
BALORAZIO OROKORRA:										

IRAKASLE TUTOREAREN BALORAZIOA (amaierako notaren % 30)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Gaitasun teknikoa (Jakitea eta Egiten jakitea)										
Gaitasun metodologikoa (Jakitea eta Egiten jakitea)										
Partaidetza-gaitasuna (Egoten jakitea)										
Gaitasun pertsonala (Izaten jakitea)										
Profesional ona izaten ikasteko prozesuaren ebaluazioa.										

OHARRAK:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

ZENBAKIZKO KALIFIKAZIOA:

.....(e)n, 201....(e)ko aren(e)(a)n
Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen sinadura